



Usurbilgo Udala

2025/11/26

2025EKO AZAROAREN 26AN EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Ainhoa Arrozpide Landa
Xabat Beloki Segurola
Iratxe Begiristain Otegi
Xabier Aranburu Leiva
Jose Maria Lizaso Azconobieta
Oskar Santamaria Picabea
Maialen Iñarra Arregi
Xabier Otxoa Muñoz
Ivan Iriondo Axpe
Josune Urkola Larrarte
Petra Romero Pozo

Idazkaria: Leire Ucin Soraluze.

Kontu-hartzailea: Gorka Lizarraga Erro.

Ez da bertaratu: Jon Mikel Azpiazu Zubeldia.

Usurbilen, 2025eko azaroaren 26an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Alkateak adierazi du gaien ordena aldatuko dela, lehenengo bi puntuen ondoren gairerrendan 12. puntu bezala datorren haur eskolako gaia tratatuko dela.

1.- 2025EKO URRIAREN 30EKO AKTA ONARTZEA.



Usurbilgo Udala

2025/11/26

Batzarkideek 2025eko urriaren 30eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2025EKO URRIAREN 27TIK AZAROAREN 19RA (2025/1353-2025/1505).

Alkatetzak 2025eko urriaren 27tik azaroaren 19ra bitartean (2025/1353-2025/1505) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- BERRI EMATEA: HAUR ESKOLAKO LANGILEEK AURKEZTUTAKO IDATZIA.

Haur Eskolako langileetako batek hitza hartu du.

Udal taldeek beraien iritzia azaldu dute.

Honakoa da Haur Eskolako langileek Udalean aurkeztutako idatzia:

“Usurbilgo Haur Eskolako langileen lan-egoeraren eta etorkizunaren inguruko adierazpena.

Aurkezten du: Usurbilgo Haur Eskolako langilegoak.

Helburua: Gure lan-egoeraren ezegonkortasuna, eta etorkizunaren inguruko kezka udalbatzaren aurrean jartzea.

Azalpena:

2023-2024 ikasturtean esleipen prozesu berri bat bizi izan genuen, hainbat aldagai kontuan izanik: doakotasuna, haur jaiotze tasaren beherapena, diru laguntzen inguruko kezka, eraikin berriaren obra...

Nola hala hasi ginen berriz ere. Oinarri batzuk finkatu, hobetu eta hiru urtez pakean egoteko ilusioarekin (3 urtetarako esleipena bait zen). Baina egonkortasunak gutxi iraun zuen.

Azaroa aldera hezkuntzak ematen zuen diru laguntzaren iturria 2025eko irailetik aurrera itxi egingo zela jaso zuen udalak eta halaxe adierazi zigun langileoi. Errealitate horren aurrean, udalak orain arteko zerbitzua ezin izango zuela mantendu esan zuen.

Egoera mahai gainean jarri eta berriz ere ekonomia eta beldurra nagusitu ziren. Proposamen desberdinak aztertu ondoren, Partzuergorako bidea hartzea erabaki zuen Udalak. Baina horrek zer suposatzen digu langileoi????

Egoera bideratu ahal izateko, urtebeteko moratoria bat luzatu zuen Hezkuntza sailak. Langilegoaren egoera kudeatzeko aldiz, jantzi juridiko baten beharra zegoela azaldu zuen



Usurbilgo Udala

2025/11/26

Udalak. Hezkuntzari eskaera hau luzatu eta oraindik, urtebete beranduago, esku artean deus ez dutela adierazi zaigu.

Martxoaren 20an EAJ-k haxe adierazi zuen Noauan:

“Langileen egoeraren errespetua: Prozesua egungo langileen eskubideak bermatuz egingo da, eta borondatea badago, langileek Haurreskolen Partzuergoan integratzeko aukera izango dute.”

Egoera honen aurrean, zalantza eta ez jakintasuna nagusi diren testuinguru honetan hainbat galdera ditugu:

- Noren borondateari buruz ari zarete?
- Zer da integrazioa? Egungo langileen subrogazioa?
- Hurrengo ikasturterako matrikulazioa ate joka daukagu, zer eskeiniko du Udalak 0-2, 0-3?
- Zeinek beteko du lan hori?
- Urtebeteko moratoria honetan langilegoaren egoera bideratzeko denbora legala ematen ez bada, zer egingo du udalak?
- Noiz emango zaio gai honi itxiera?

Beraz, udaleko ordezkari guztiei eskatzen dizuegu:

1. Haur Eskolako langileekin komunikazio zuzena, gardena eta etengabea bermatzea, gure etorkizunari buruzko informazioa garaiz eta argi partekatuz.

2. Udalak bere gain har dezala lanpostuen egonkortasuna eta lan-baldintzen bermearen konpromisoa, Partzuergoarekin edo beste erakundeekin (Ikastola) dituen akordioetan, langileon eskubideak errespetatuz eta defendatuz subrogazioaren bidez.

Zaintzaren eredia den herri honetan, 25 urte hauetan zehar haur eta familia ugari jaso ditugu gure eskuetan, zaintza oinarritzat hartuta; ibilbide luze eta ziurgabeak honeraino ekarri gaitu eta

ORAIN, NORBAITEK ZAINDUKO AL GAITU GU?”

4.- KONTU EMATEA: KONTROL IRAUNKORREKO FISKALIZAZIO LABURPEN TXOSTENA ETA EKINTZA PLANA.

Kontrol Iraunkorreko Fiskalizazio Laburpena Txostenaren eta Ekintza Planaren berri eman da.

5.- 2026KO ORDENANTZA FISKALEI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK ERANTZUN ETA ORDENANTZA FISKALAK BEHIN BETIKO ONARTZEA (2025EKOF0002).



Usurbilgo Udala

2025/11/26

Puntu hau bertan behera utzi da.

6.- 2026-2028 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ETA 2026KO ERANSKINAK ONARTZEA (2025EKON0016).

Batzarkideek Antolaketa batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“AURREKARIAK

Usurbilgo Udalbatza Plenoak 2022ko abenduaren 22ko bilkuran onartu zuen 2023-2025 aldirako Usurbilgo Udaleko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

Orain Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (2026-2028) berriro eta 2026ko eranskinak onartu behar dira.

Antolaketa batzordeak, 2025eko azaroaren 19ko bilkuran aztertu ondoren, aho batez onartu ditu, honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: EHBildu (3), EAJ (1), PSE-EE (1)

Kontrako botoak:-

Abstentzioak:-

Hori guztia horrela, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehena: 2026-2028 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren 2026ko eranskinak onartzea.

Bigarrena: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean erabaki hau argitaratzea.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

7.- 2026KO AURREKONTU PROIEKTUA HASIERAZ ONARTZEA (2025EKAU0001).



Usurbilgo Udala

2025/11/26

Batzarkideek Antolaketa batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“2026 urtean indarrean izango den Aurrekontua osatzeko garaia iritsita, udal gobernu taldeak bere aurrekontu proposamena aurkeztu zuen azaroaren 4ko ez-ohiko Antolaketa Batzordean. Egun berean gonbidapena luzatu zien beste udal taldeei, egoki ikusten zituzten ekarpenak egin zituzten.

EAJ-PNV eta PSE udal taldeek idatziz egindako ekarpen eta zuzenketak eztabaidatu dira. Azaroaren 19ko Antolaketa Batzordean, orotara 250.180,00 euroko kopuruagatik onartu dira.

Onartutako emendakinekin eta legezko txosten guztiak jaso ondoren, osatutzat eman du Aurrekontu proiektua udal gobernu taldeak eta azaroaren 19ko Ogasun Batzordean, batzordea osatzen duten kideen gehiengoaren oniritziarekin, 3 bozka alde (EHBildu), 0 kontra (-) eta 2 abstentzio (EAJ eta PSE-EE) egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

Lehena: 2026ko ekitaldirako Usurbilgo Udalaren Aurrekontu proiektua hasieraz onartzea, guztira 14.348.103,59 eurokoa

Bigarrena: Hasieraz onetsitako Aurrekontua jendaurrean jartzea 15 eguneko epealdian Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, epealdi horretan interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiotelarik.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi eta Petra Romero Pozo.

Kontra: Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe eta Josune Urkola Larrarte.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

8.- UDALEKO LANGILEEK TELELANA EGITEKO ERREGELAMENDUA HASIERAZ ONARTZEA (2025UDOR0006).

Batzarkideek Antolaketa batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Usurbilgo Udaleko langileak telelana egiteko aukera izateko erregelamendu bat egin da. Ondoren, Negoziaketa mahaitik pasa da.



Usurbilgo Udala

2025/11/26

Udal idazkariak txostena egin du.

Gaia 2025eko azaroaren 19an egindako antolaketa batzordean aztertu da eta onartu da, bozketa honela izan da:

- Aldeko botoak: EHBildu (3), EAJ (1), PSE-EE (1)
- Kontrakoak:-

Beraz, batzordeko irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehena: Usurbilgo Udaleko langileek zerbitzua telelanaren bidezko modalitate ez-presentzian emateko erregelamendua haseraz onartzea.

Bigarrena: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta iragarki taulan iragarkia argitaratzea eta hogeita hamar egun balioduneko epean erakusketa publikoan jartzea, erreklamazioak edota alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan erreklamaziorik ez balego, behin betikotzat onartua geratuko litzakelarik.

Hirugarrena: Behin betikoz onartu ondoren, ordenantza Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

9.- 2025EKO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA ONARTZEA (2024FAZE0002).

Batzarkideek Antolaketa batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“2025ko Lanpostuen zerrenda 2024ko abenduaren 19an egindako ohiko bilkuran onartu zen.

Ondoren hainbat aldaketa egin dira.



Usurbilgo Udala

2025/11/26

Orain, berriz, Arkitektoa/Hirigintza, Obrak eta ingurugiro saileko burua lanpostuan ondorengo aldaketa proposatzen da:

2.- ARKITEKTOA/HIRIGITZA, OBRAK ETA INGURUGIRO SAILEKO BURUA.

Honela, Lanpostuen Zerrendan erabilitako kodeen azalpenenean; zehazki titulazioen atalean honela esaten da:

501: Arkitektoa

501: Arquitecto/a.

Honela esan beharko luke:

501: Arkitekturako gradua edo baliokidea gehi arkitekturako master ofiziala edo arkitekturako unibertsitate-titulua:

501: Grado en Arquitectura o equivalente más Máster Oficial en Arquitectura o Título Universitario en Arquitectura.

Lanpostuen zerrenda apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. eta hurrengoetan eta abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikorako 11/2022 Legeak 45. artikuluan arautzen da. Dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Dena den, egintza administratiboa den heinean, argitaratzea informazioa emateko helburuarekin egiten da eta hortaz, indarrean egongo da, Udalbatzaren erabakitik.

Pertsonal teknikariak eta idazkariak txostena osatu dute.

Gaia 2025ko azaroaren 19an egindako Antolakuntza Batzordean eztabaidatu eta gehiengoz onartu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: (3) EHBildu, (1) EAJ, (1) PSE-EE

- Abstentzioa:-

Beraz, Antolaketa batzordearen irizpena kontutan hartuta, Udalbarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehena: 2025eko Lanpostuen Zerrendan proposatutako aldaketa sartzea.

Bigarrena: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.



Usurbilgo Udala

2025/11/26

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

10.- 2026KO PLANTILA ORGANIKOA HASIERAZ ONARTZEA (2025FAZE0001).

Batzarkideek Antolaketa batzorde informatzailearen irizpena azertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 90.1 artikuluan jasotakoaren arabera, urtero Udal aurrekontuarekin batera Plantilla Organikoa onartu behar da.

Horretaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, 14-15. artikuluetan jasotzen du Aurrekontua onartzeko jarraitu beharreko prozesura.

Pertsonal saileko teknikariak eta udal idazkariak txostenak egin dituzte.

Gaia 2025eko azaroaren 19an egindako Antolaketa batzordean azertu da eta hurrengo bozkak eman dira:

Aldeko botoak: EHBildu (3), EAJ(1) eta PSE-EE(1)

Kontrako botoak:-

Abstentzioak:-

Beraz, Antolaketa batzordearen irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehena: Erabaki honi erantsita doan 2026ko Plantilla Organikoa hasieraz onartzea.

Bigarrena: Gipuzkoako aldizkari ofizialean iragarkia argitaratzea eta hamabost egunez erakusketa publikoan jartzea, erreklamazioak edota alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan erreklamaziorik ez balego, behin betikotzat onartua geratuko litzateke.

Hirugarrena: Behin betikoz onartu ondoren, dokumentua Gipuzkoako aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.



Usurbilgo Udala

2025/11/26

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

11.- BAKE EPAILEAREN HAUTAKETA PROZESUA: HAUTAGAIA IZATEKO PROPOSAMENA ONARTZEA (2025IPED0001).

Batzarkideek Antolaketa batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“2025eko irailean EAEko Auzitegi Nagusiko idatzia jaso zen esanez bake epailea lau urterako izendatu zela eta epe hori amaitu zenez, izendapen berria egin behar zela. Hori horrela, 2025eko irailaren 25eko Udalbatzarrean Usurbilgo bake epaile titularren eta ordezkoren hautaketa prozesuko deialdia egitea erabaki zen. Honela zion erabakiak:

LEHENA: Hilabete bateko epea finkatzea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontaktzen hasita, Usurbilgo Bake Epaile titularra eta honen ordezkoa izateko interesa dutenek eskaerak aurkez ditzaten. Eskaerak udaletxe honetako erregistroan edota Administrazioako Jardunbidea arautzen duen Legediak xedaturiko eran aurkeztu beharko dira.

BIGARRENA: Espedientea erakusketa publikoan jartzea aipaturiko epean, interesatuek azter dezaten.

HIRUGARRENA: Erabaki hauek iragartzea Udaleko iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Usurbilgo Bake Epaitegian eta Lehen Auzialdiko eta Argibideko Donostiako Epaitegi Dekanoan.

Aipaturiko erabakiak honako iragarpen hauek izan ditu:

- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2025/10/03, 189 zk.)
- Udaleko iragarki taulan eta web orrian.
- Donostiako Lehen Auzialdiko Epaitegian.
- Usurbilgo Bake Epaitegian.

Eskaera aurkezteko epean hau jaso da:

Eskatzailea	Bizilekua	Curriculum	Euskara
Agustin Esnaola Etxabe	Usurbil	-Ikasketak: *Batxilergoa. *Lanbide Hezkuntza II. -Lan esperientzia: *Unibertsitate mailako institutu bateko idazkari nagusia. *Azken hogeitertan Usurbilgo bake epailea.	Ama hizkuntza

Eskaera aztertu ondoren, Antolakuntza Batzordeak, 2025eko azaroaren 19an egindako bilkuran, bozkek hauek izan dira: aldekoak: EHBildu (3), EAJ (1), PSE-EE (1), kontrakorik ez



Usurbilgo Udala

2025/11/26

eta abstentziorik ere ez, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehena: Agustin Esnaola Etxabe Usurbilgo bake epaile titularra izateko proposamena egitea.

Bigarrena: Erabaki hau EAEko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzari jakinaraztea, dagokion izendapena egin dezan.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

12.- ADIERAZPENEA: EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA (2025IMOZ0010).

Adierazpena batzorde informatzaile batek diktaminatu gabe datorrenez, batzarkideek plenoan tratatzea onartu dute aho batez.

Batzarkideek aho batez onartu dute Euskararen Nazioarteko Egunari buruzko adierazpena, honela dio:

“ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2025

Euskara ZUGAN, NIGAN, GUGAN

Euskarak bide luzea egin du.

Luzeena, agian, Europa zaharrea.

Eta hala ere, bere bidea ez da amaitu: bizirik dirau, hazi eta berritzen ari da.

Zein da sekretua?

Zein indar, zein ilusio izan da gure hizkuntza gaur arte ekarri duena?

Milaka urte, milaka pertsona, milaka amets eta ahalegin.

Norbanakoen indar isilak, belaunaldiz belaunaldi, gure hizkuntza zaharra gazte bihurtu du.

Debekuen aurrean, eutsi genuen.

Isilaraztearen aurrean, hitza berreskuratu genuen.

Euskara, gure zaharren hizkuntza izatetik, gazteen hizkuntza izatera pasa da.



Usurbilgo Udala

2025/11/26

Argi-izpi berri hauekin marraztuko dugu etorkizuna.
Euskararentzat aukera berriak zabalik daude.
Hazi eta berritu dadin lanean ari gara.

Bizi garen mundu nahasi eta aldakor honek, ordea, zaildu egiten du komunitatearen indarra eta zentzua.
Hiztun-komunitatea ez da berez mantentzen.
Zaindu, elikatu eta piztu egin behar da.

Horregatik, unea da.
Euskararen erabilerarako eta transmisiorako bide berriak jorratzeko unea.
Aisialditik lan munduraino, eta norbanakotik erakundeetaraino, euskaraz hitz egiteko gune erosoak sortzeko unea.
Belaunaldi berrien artean euskararen transmisioa indartzeko unea.
Euskararen ezagutza zabaltzeko unea.
Erabilera sustatzen duten ingurune biziak zaindu eta berriak irabazteko unea.
Indarrak bildu eta urrats berriak eta ausartak egiteko unea.

Asko dugu egiteko, badugu zer hobetu.
Eta prest gaude!
Euskaraz dakiten eta oraindik ez dakitenekin batera.
Elkarrekin egiteko.

Eskerrik beroena urte luzez euskara bizi, euskaraz bizi eta biziarazi dutenei.
Zuen lan isilak ekarri gaitu honaino, eta etorkizunak oraindik ere zuen beharra du.
Pozetik, atxikimendutik, ilusioz eta emozio positiboetatik abiatuta, euskarari distira emateko,
Eta euskara guztion hizkuntza bihurtzeko.

Euskara da!
Guztiontzat da.
Euskara ezagutzen ez dutenentzat ere, ate berri bat da.
Batzen gaituen hizkuntza bat.
Elkar ulertzeko gonbidapen bat.

Mundu berri bat irekitzen zaio euskarari.
Eta euskararekin, edonori.
Ate berriak zabaldu eta lur zoru berriak landuko ditugu, denon artean.
Hazi emankorrangoak ditugu lur berria ereiteko.

Atzeak erakuts diezagula aurea nola dantzatu.
Norberetik hasita egingo dugu bidea.
Guztion baitan baitago euskararen jauzia.
Zugan, nigan, gugan.



Usurbilgo Udala

2025/11/26

2025eko Euskararen egunean, gugandik abiatuta, ondorengo konpromiso hauek hartzen ditu Usurbilgo Udalak:

- Udal politiketan euskara erdigunean jartzea.
- Hizkuntza politikan atzera urratsik ez egitea.
- Euskarak behar duen jautsian udalari dagokiona egitea, eta horretarako bitartekoak jartzea.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

13.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dago.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 20:15etan. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.